  Zor-tresnarako merkatu aktiborik ez badago, balioztapen-teknika hauek erabiltzen dira: bitartekariek, jaulkitzaileek edo informazio-hedatzaileek emandako prezioak; alderdi interesdunen artean elkarrekiko independentziaz eta behar bezala informatuta egindako merkatuko oraintsuko transakzioak (eskuragarri badaude); funtsean bera den beste tresna baten egungo arrazoizko balioa, edo, dagokionean, fluxuen deskontu-ereduak eta aukeren balioztapenak.

  Kobratu ez diren eta zorra adierazten duten baloreek sortutako interesak interes-tasa efektiboaren arabera periodifikatu eta ekitaldiko emaitzen artean sartzen dira.

- Ondare-tresnak. Beste erakunde batzuek jaulkitako finantza-tresnak (akzioak eta partaidetza-kuotak, adibidez), jaulkitzailearentzat kapital-tresnen izaera badute.

  Kotizatutako ondare-tresnen arrazoizko balioa balantze-eguneko edo, bestela, aurreko laneguneko itxierako kanbio ofizialak finkatzen du, eta, itxierako prezio ofizialik ez badago, haztatutako batez besteko kanbioak.

• Kreditu-erakundeetako gordailuak. Funtsak kreditu-erakundeetan dituen gordailuak, «Altxortegia» epigrafean jasotako saldoak salbu.

Inbertsioaren barne-errendimendua une bakoitzean merkatuan indarrean dauden tasekin parekatzen duen zenbatekoa hartzen da arrazoizko baliotzat.

• Beste Inbertsio Kolektiboko Erakunde batzuen akzioak edo partaidetzak. Erreferentziazko eguneko likidazio-balioaren edo kotizazio-balioaren arabera ezartzen da horien arrazoizko balioa. Erreferentziazko egunerako ez bada likidazio-baliorik kalkulatu, eskura dagoen azken likidazio-balioa erabiliko da. Inbertsio Askeko Inbertsio Kolektiboko Erakundeetan, Inbertsio Askeko Inbertsio Kolektiboko Erakundeen Inbertsio Kolektiboko Erakundeetan eta atzerriko antzeko Inbertsio Kolektiboko Erakundeetan inbertitzeko, behar denean, estimatutako likidazio-balioak erabiltzen dira.

• Deribatuak. Barne hartzen ditu, besteak beste, gerokoen eta forwarden kontratuetako balio-aldeak, erositako edo jaulkitako warrant eta aukerengatik kobratutako nahiz ordaindutako hobariak, finantza-trukeko kontratuei lotutako kobrantza edo ordainketak eta egituratutako produktuetako inbertsioak.

Itxierako kanbio ofizialak erreferentziazko egunean duen balioak zehazten du bere arrazoizko balioa. Antolatutako merkatuetan negoziatu ez direnentzat, CNMVren 6/2010 Zirkularrean eta ondorengo aldakuntzetan ezarritako baldintzen araberako balioztapen-eredua ezartzen du Sozietate Gestoreak.

Itxierako kanbio ofizialak erreferentziazko egunean duen balioak zehazten du bere arrazoizko balioa. Antolatutako merkatuetan negoziatu ez direnentzat, CNMVren 6/2010 Zirkularrean eta ondorengo aldakuntzetan ezarritako baldintzen araberako balioztapen-eredua ezartzen du Sozietate Gestoreak.

Inbertsioa nabarmen eta konpontzeko modurik gabe narriatzen zaien aktiboei baja emango zaie, galdu-irabazien kontuaren kargura.

Finantza-aktibo eta -pasiboei horien jabegoak berezkoak dituen arrisku eta onura guztiak intsuldatzen direnean ematen zaie baja balantzean.

## e) Aktiboen aldi baterako eskurapena eta lagapena

Aktiboen aldi baterako eskurapenak edo ostera lagatzeko itundun eskurapenak ordaindutako zenbateko efektiboaren arabera kontabilizatzen dira, dagokien aktiboen kontuan, azpian dituzten tresnak edozein direlarik ere.

Kopuru horren eta ostera-lagapenaren prezioaren arteko aldea galdu-irabazien kontuan egozten da sarrera moduan, interes-tasa efektiboaren metodoa erabiliz.

Arrazoizko balioen arteko aldeak galdu-irabazien kontuko «Finantza-tresnen arrazoizko balioaren aldakuntza» epigrafean egozten dira.

Aldi baterako eskuratutako aktiboaren lagapen irmoa «galdu-irabazietan aldaketak dituen finantza-pasiboa arrazoizko balioan» kategorian erregistratzen da.

**f) Ondare-tresnak**

Ondare-tresna kotizatuak kontratatzen direnean erregistratzen dira, emandako kontraprestazioaren arrazoizko balioan; zuzenean eragiketari egoztekoak diren transakzio-kostu esplizituak ere hartzen dira kontuan.

Aktibo horien arrazoizko balioan gertatutako aldaketen ondoriozko aldeak honela jaso dira galdu-irabazien kontuan: alde negatibo edo positiboak «Finantza-tresnak besterentzeagatiko narriadura eta emaitza» edo «Barruko edo kanpoko zorroko eragiketen ondorioz finantza-tresnen arrazoizko balioan gertatutako aldakuntzak» epigrafeetan erregistratzen dira, likidatu diren ala ez aintzat hartuta. Kontrapartida moduan, balantzeko aktiboaren barruko nahiz kanpoko zorroko «Ondare-tresnak» epigrafea erabiltzen da.

**g) Zorra adierazten duten baloreak**

Zorra adierazten duten baloreak likidatzean erregistratzen dira, emandako kontraprestazioaren arrazoizko balioan; zuzenean eragiketari egoztekoak diren transakzio-kostu esplizituak ere hartzen dira kontuan.

Aktibo horien arrazoizko balioan gertatutako aldaketen ondoriozko aldeak honela jaso dira galdu-irabazien kontuan: alde negatibo edo positiboak «Finantza-tresnak besterentzeagatiko narriadura eta emaitza» edo «Barruko edo kanpoko zorroko eragiketen ondorioz finantza-tresnen arrazoizko balioan gertatutako aldakuntzak» epigrafeetan erregistratzen dira, likidatu diren ala ez aintzat hartuta. Kontrapartida moduan, balantzeko aktiboaren barruko nahiz kanpoko zorroko «Zorra adierazten duten baloreak» epigrafea erabiltzen da.

**h) Deribatuetako eragiketak, finantza-trukeak kanpo utzita**

Deribatuetako eragiketak oroipen-kontuetan dagokien epigrafean erregistratzen dira, kontratatzen direnean eta posizioa itxi arte edo kontratua mugaeguneratu arte. Konprometitu den zenbatekoa idazten da.

Berme gisa gordailututako funtsak, lagatako gordailu gisa hartzen dira kontabilitatean, eta balantzeko aktiboko «Zordunak» epigrafean dagokien atalean erregistratzen dira.

Bermetan emandako baloreen arrazoizko balioa oroipen-kontuetan erregistratzen da, «Inbertsio Kolektiboko Erakundeak berme gisa ekarritako baloreak» epigrafean.

Erositako edo jaulkitako aukeren ondoriozko primak balantzeko aktiboko edo pasiboko «Deribatuak» epigrafean jasotzen dira, eragiketa egin zen datarekin.

Aktibo horien arrazoizko balioan gertatutako aldaketen ondoriozko aldeak honela jaso dira galdu-irabazien kontuan: alde negatibo edo positiboak «Deribatuetako eragiketen

emaitzak» edo «Deribatuetako eragiketen ondorioz finantza-tresnen arrazoizko balioan gertatutako aldakuntzak» epigrafeetan erregistratzen dira, aldakuntzak likidatu diren ala ez aintzat hartuta. Kontrapartida moduan, balantzeko aktiboko edo pasibo korronteko barruko nahiz kanpoko zorroko «Deribatuak» epigrafea erabiltzen da.

**i) Atzerri-dirua**

Altxortegiari, zordunketei edo kredituei dagozkien diruzko partidetarako, kanbio-aldeak, positiboak zein negatiboak, «Kanbio-aldeak» epigrafean kontabilizatzen dira galdu-irabazien kontuan.

Finantza-tresnen zorroa osatzen duten eta diruzkoak diren eta ez diren gainerako kontu-sailetan, kanbio-aldeak balioztapenaren ondoriozko galdu-irabaziekin batera hartzen dira.

**j) Partaidetzen likidazio-balioa**

Funtsa osatzen duten partaidetzen likidazio-balioa kalkulatzeko, haren ondarea zehazten da, Balore Merkatuko Komisio Nazionalaren 6/2008 Zirkularrean eta ondorengo aldakuntzetan ezarritako irizpideak erabiliz.

**k) Harpidetzak eta itzultzeak**

Partaidetzen harpidetzak edo itzultzeak benetan harpidetu edo itzulitako kopuruarekin kontabilizatzen dira, eta Funtsaren balantzeko pasiboko «Partaideak» atalean ordaindu edo zordundu, kasuan kasukoa.

Funtsaren Gestio Erregelamenduari jarraikiz, interesdunak eskaera egin duen eguneko likidazio-balioarena izango da partaidetzen prezioa, eta horrela finkatuko dira bai harpidetu nahiz itzulitako partaidetzen kopurua, bai dagokionean itzuli beharreko eskudirua. Partaidetzak eskatzen direnetik horien salneurria finkatzen den arteko epealdian, eskatutako zenbatekoa Funtsaren balantzeko pasiboko «Partaidetzak esleitu gabe dituzten harpidetza-eskaerak» atalean erregistratzen da.

**l) Mozkinen gaineko zerga**

Mozkinen gaineko zergaren ondoriozko gastua galdu-irabazien kontuan adierazten da, eta zenbatekoa kalkulatzerakoan zerga-oinarriaren eta geroagoko epealdietan eragina izango duen zerga aplikatu aurreko kontabilitate-emaitzaren arteko aldeak hartzen dira kontuan.

Zerga geroratuen ondoriozko pasiboak beti kontabilizatzen dira; zerga geroratuen aktiboak, berriz, erakundeak etorkizunean irabazi fiskalak izateko eta, ondorioz, aktibook aplikatzeko aukerak daudenean soilik.

Galera fiskalen ondorioz hurrengo ekitaldietan konpentsatu beharreko eskubideek ez dakarte berekin, inolaz ere, aktibo bat geroratutako zergaren arabera kontabilizatzea, eta gastua likidazio-balioaren kalkuluaren maiztasunez zergaren arabera konpentsatuz kontabilizatzen dira soilik. Konpentsa daitezkeen galera fiskalak «Oroipen-kontuak – Konpentsatzeko galera fiskalak» epigrafean erregistratzen dira.

## 4. ZORDUNAK

Hona hemen epigrafe horren banakapena, 2022ko eta 2021eko abenduaren 31n:

| | 2022 | 2021 |
|---|---|---|
| Berme-gordailuak | 27 248,67 | 29 684,13 |
| Administrazio publikoak zordun | 14 047,99 | 11 277,42 |
| Likidatzeko dauden eragiketak | 2 091,87 | - |
| | **43 388,53** | **40 961,55** |

«Zordunak – Berme-gordailuak» atalaren barruan, ekitaldia amaitzean indarrean zeuden finantza-gerokoen posizioen berme gisa eurotan eratutako gordailuen 2022ko eta 2021eko abenduaren 31ko balioa dago jasota.

Interesen eta kapital higigarriko beste errendimendu batzuen gainean ekitaldian egindako atxikipenak jasotzen ditu 2022ko eta 2021eko abenduaren 31ko «Administrazio publikoak zordun» atalak.

2022ko abenduaren 31ko «Zordunak – Likidatzeko dauden eragiketak» atalean, dagokion ekitaldiko azken egunetako dibidenduen zenbatekoak daude jasota. Horiek 2023ko ekitaldiko lehen egunetan likidatu dira.

## 5. HARTZEKODUNAK

Hona hemen epigrafe horren banakapena, 2022ko eta 2021eko abenduaren 31n:

| | 2022 | 2021 |
|---|---|---|
| Administrazio publikoak hartzekodun | - | 2 209,92 |
| Beste batzuk | 20 840,47 | 27 508,98 |
| | **20 840,47** | **29 718,90** |

2021eko abenduaren 31ko «Administrazio publikoak hartzekodun» atalak ekitaldi horretan sortutako mozkinen gaineko zerga biltzen du.

2022ko eta 2021eko abenduaren 31ko «Hartzekodunak - Beste batzuk» atalean, kasuan kasuko ekitaldia ixtean ordaintzeko dauden gestio- eta gordailuzaintza-komisioen zenbatekoa jaso da, batez ere.

2022ko eta 2021eko ekitaldietan, Funtsak ez du legez ezarritakotik gorako geroratzerik duen ordainketarik egin. Era berean, 2022ko eta 2021eko ekitaldiak ixtean, Funtsak ez du legeak ezarritako epea gainditzen duen geroratzedun saldorik ordaintzeko.

## 6. FINANTZA-INBERTSIOEN ZORROA

2022ko eta 2021eko abenduaren 31n, hauxe da Funtsaren balore-zorroa, aktibo-motaren arabera:

| | 2022 | 2021 |
|---|---|---|
| **Barruko zorroa** | **926 513,81** | **1 179 444,32** |
| Zorra adierazten duten baloreak | 805 029,44 | 1 026 606,93 |
| Ondare-tresnak | 121 484,37 | 152 837,39 |
| **Kanpoko zorroa** | **1 772 952,21** | **2 575 455,18** |
| Ondare-tresnak | 1 683 266,77 | 2 456 457,08 |
| Inbertsio-zorroko interesak | 84 375,44 | 118 998,10 |
| Deribatuak | 5 310,00 | - |
| **Inbertsio-zorroko interesak** | **(21 046,23)** | **(14 872,74)** |
| | **2 678 419,79** | **3 740 026,76** |

Txosten honekin batera doazen I. eta II. eranskinetan, Funtsaren finantza-inbertsioen zorroak eta deribatuetan egindako inbertsioek 2022ko abenduaren 31n duten osaera zehaztu da. Txosten honekin batera doazen III. eta IV. eranskinetan, Funtsaren finantza-inbertsioen zorroak eta deribatuetan egindako inbertsioek 2021eko abenduaren 31n zuten osaera zehaztu da.

2022ko eta 2021eko abenduaren 31n, finantza-inbertsioen zorroko titulu guztiak Caja Laboral Popular Coop. de Créditon daude gordailututa.

## 7. ALTXORTEGIA

Honako hau da epigrafe horren osaera 2022ko eta 2021eko ekitaldien amaieran:

| | 2022 | 2021 |
|---|---|---|
| **Entitate Gordailuzaineko kontuak** | | |
| Kontuak eurotan | 25 616,21 | 83 782,13 |
| | **25 616,21** | **83 782,13** |

2022ko eta 2021eko abenduaren 31ko «Gordailuzaineko kontuak» atalean, Funtsak Gordailuzainean dituen kontu korronteetako saldoa dago jasota, bai eta ekitaldi-amaieran sortutako interesen periodifikatzea ere. Funtsaren kontu korronteen interes-tasa −% 0,4koa izan da 2021etan zehar eta 2022ko urtarrilaren 1etik 2022ko uztailaren 31ra bitartean. 2022ko abuztuaren 1etik 2022ko abenduaren 31ra bitartean, errentagarritasuna % 0koa izan da.

## 8. PARTAIDEEI ESLEITUTAKO ONDAREA

Funtsaren partaidetza guztiak balio nominalik gabeko izendun ziurtagiri bidez daude ordezkatuta, eta horiek ondarearen gaineko jabetza-eskubidea ematen diete jabeei.

Partaidetza bakoitzaren 2022ko eta 2021eko abenduaren 31ko likidazio-balioa honela lortu da:

| | 2022 | 2021 |
|---|---|---|
| Partaideei esleitutako ondarea | 2 726 584,06 | 3 835 051,54 |
| Jaulkitako partaidetza-kopurua | 214 396,95 | 269 081,87 |
| Partaidetzaren likidazio-balioa | 12,72 | 14,25 |
| Partaide-kopurua | 376 | 405 |

Partaideei esleitutako ondareak 2022ko eta 2021eko ekitaldietan izandako mugimendua «Ondare garbiaren aldaketen egoera-orria» atalean jaso da.

Ekitaldiko emaitza, mozkinen gaineko zerga aintzat hartu ostean, Funtseko «Partaideak» kontuan banatuko da.

2022ko eta 2021eko abenduaren 31n, ez dago % 20tik gorako partaidetza duen partaiderik. Hortaz, Inbertsio Kolektiboko Erakundeen 1082/2012 Errege Dekretuaren 31. artikuluaren arabera, ez dago partaidetza nabarmenik.

## 9. KONPROMISO-KONTUAK

Txosten honekin batera doazen II. eta IV. eranskinetan, Funtsak deribatuetan egindako inbertsioen zorroak 2022ko eta 2021eko abenduaren 31n zuen osaera zehaztu da, hurrenez hurren.

## 10. BESTE OROIPEN-KONTU BATZUK

Hona hemen epigrafe horren banakapena, 2022ko eta 2021eko abenduaren 31n:

| | 2022 | 2021 |
|---|---|---|
| Konpentsatu beharreko galera fiskalak | 5 740 040,08 | 5 740 040,08 |
| Beste batzuk | 877 110,19 | 961 029,72 |
| | **6 617 150,27** | **6 701 069,80** |

## 11. ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK ETA EGOERA FISKALA

2022ko eta 2021eko ekitaldietan zehar, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2014ko urtarrilaren 17ko 2019 Foru Arauak, sozietateen gaineko zergari buruzkoak, arautu du Funtsaren erregimen fiskala, hain zuzen ere Gipuzkoako Foru Aldundiaren 1996ko uztailaren 4ko 17 Foru Araua, sozietateen gaineko zergari buruzkoa, eta ondorengo aldakuntzak indargabetu zituenetik. 2022ko eta 2021eko ekitaldietan zehar, Funtsak 100eko 1eko karga-tasa izan du sozietateen gaineko zergan, betiere 35/2003 Legearen bosgarren eta bederatzigarren artikuluetan eta ondorengo aldakuntzetan adierazten diren partaideak baditu gutxienez.

Gainera, 2/2014 Foru Arauaren aldakuntza horiek direla eta, 2018ko ekitalditik aurrera aplikatzekoak diren eta aurreko ekitaldietatik datozen zerga-oinarri negatiboen, likidatu edo autolikidatu direnen, konpentsazioa, konpentsazio hori egin aurreko zerga-oinarri positiboaren % 50ekoa izango da, gehienez. Muga % 70ekoa izango da Foru Arau horren 13. artikuluan zehaztutako mikroenpresentzat eta enpresa txikientzat.

«Hartzekodunak - Administrazio publikoak» atalean, berriz, ekitaldian sortutako mozkinen gaineko zerga bildu da, zerga aurreko kontabilitate-emaitzaren % 1 aplikatzetik lortzen dena, aurreko ekitaldietako zerga-oinarri negatiboak kendu ostean, indarreko araudian ezarritako mugen arabera.

2022ko eta 2021eko abenduaren 31n, 5.740.040,08 eurokoa da konpentsatzeko zeuden zerga-oinarri negatiboen zenbatekoa.

2022ko abenduaren 31n, ez dago alde nabarmenik ekitaldiko zerga aurreko kontabilitate-emaitzaren eta mozkinen gaineko zerga-oinarriaren artean. 2021eko abenduaren 31n, ekitaldiko zerga aurreko kontabilitate-emaitzaren eta mozkinen gaineko zerga-oinarriaren arteko aldea konpentsatzeko zeuden zerga-oinarri negatiboen konpentsazioaren —220.992,05 eurokoa— ondorio izan zen.

Indarrean dagoen legeriaren arabera, Funtsari dagozkion zergak ezin dira behin betikotzat jo, harik eta agintari fiskalek ikuskatzen dituzten arte edo 4 urteko preskripzio-epea iragan arte.

Azken 4 ekitaldietako zerga guztiak ikuskatzeko prest ditu Funtsak.

Ez dago agintari fiskalen ikuskaritzaren ondorioz gorabehera nabarmenik sortzeko arriskurik.

## 12. BESTELAKO INFORMAZIOA

Sozietate Gestoreak 35/2003 Legearen 67. artikuluan eta ondorengo aldakuntzetan eta 1082/2012 Errege Dekretuaren 139. artikuluan eta ondorengo aldakuntzetan aurreikusitako eragiketa lotetsiak egiten ditu Funtsaren kontura. Horretarako, Sozietate Gestoreak zenbait prozedura ezarri ditu, interes-gatazkak saihesteko eta lotutako eragiketak Funtsaren mesedetan eta merkatu-prezioetan egiten direla bermatzeko. Aldian behin egin beharreko

txostenetan, egindako eragiketa lotetsien informazioa txertatzen da, CNMVren 4/2008 Zirkularrean eta ondorengo aldakuntzetan araututakoari men eginez. Gainera, Sozietate Gestorearekin edo horri lotutako beste pertsona nahiz erakunde batzuekin Funtsaren kontura egindako eragiketa lotetsiak ere jasotzen ditu, eta horien izaeraren, arriskuen eta zereginen berri ematen du.

Beste alde batetik, «Jarduera eta arriskuaren gestioa» izeneko oharrean, Sozietate Gestorearen Taldekoak diren erakundeek gestionatutako Inbertsio Kolektiboko Erakundeetan jatorria duten ostera-lagatako komisioen zenbatekoa jasotzen da, baldin eta ekitaldian sortutakoak badira.

Gordailuzainarekin egiten dituen eragiketei dagokienez, «Altxortegia» oharrean Funtsak Gordailuzainarekin dituen kontuen berri eman da, eta, I. eta III. eranskinetan, hurrenez hurren 2021eko eta 2020ko abenduaren 31n Gordailuzainarekin egindako aktiboen aldi baterako eskurapenak jaso dira.

Erakundeak ez duenez ez langilerik ez bulegorik, eta bere izaera kontuan hartuta Inbertsio Kolektiboko Erakundeak Gestionatzeko Sozietate batek gestionatu behar duenez, Sozietate Gestoreari bakarrik aplikatzen zaizkio ingurumena babesteari eta langileen segurtasuna eta osasuna zaintzeari buruzko gaiak.

PricewaterhouseCoopers Auditores SLk 4 eta 3 mila euroko zerbitzu-sariak jaso ditu, hurrenez hurren, 2022ko eta 2021eko ekitaldietako urteko kontuen ikuskaritza egiteagatik. Ekitaldi horietan, sozietate ikuskatzaileak edo horri atxikitako enpresek ez dute kontu-ikuskaritzaz bestelako zerbitzurik eman.

## 13. OSTEKO EGITATEAK

2022ko abenduaren 31n ekitaldia itxi zenetik urteko kontuak formulatu arte, ez da gertatu aurretik aipatu ez den garrantzi bereziko egitaterik.

## I. eranskina. Finantza-inbertsioen zorroa, 2022ko abenduaren 31koa
(Eurotan adierazita)

| Barruko Zorroa | Dibisa | Hasierako balioztapena | Interesak | Arrazoizko balioa | (Minusbalioa) / Gainbalioa | ISIN |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Zor publikoa** | | | | | | |
| BONUA, ESTATU ESPAINOLAREN Z. % 4,65 2025-07-30 | EUR | 85 220,67 | (2 070,96) | 82 735,78 | (2 484,89) | ES00000122E5 |
| BONUA, ESTATU ESPAINOLAREN Z. % 3,80 2024-04-30 | EUR | 22 079,00 | (408,99) | 21 166,73 | (912,27) | ES00000124W3 |
| BONUA, ESTATU ESPAINOLAREN Z. % 1,60 2025-04-30 | EUR | 23 024,50 | 243,81 | 22 334,82 | (689,68) | ES00000126Z1 |
| BONUA, ESTATU ESPAINOLAREN Z. % 2,15 2025-10-31 | EUR | 38 076,15 | (1 712,99) | 36 127,20 | (1 948,95) | ES00000127G9 |
| BONUA, ESTATU ESPAINOLAREN Z. % 5,15 2028-10-31 | EUR | 158 250,65 | (12 967,88) | 141 432,87 | (16 817,78) | ES00000124C5 |
| BONUA, ESTATU ESPAINOLAREN Z. % 1,45 2027-10-31 | EUR | 52 332,80 | (1 597,09) | 46 099,49 | (6 233,31) | ES0000012A89 |
| BONUA, ESTATU ESPAINOLAREN Z. % 1,40 2028-04-30 | EUR | 171 951,43 | (927,31) | 149 376,92 | (22 574,51) | ES0000012B39 |
| BONUA, ESTATU ESPAINOLAREN Z. % 1,85 2035-07-30 | EUR | 62 940,90 | (1 198,13) | 46 165,88 | (16 775,02) | ES0000012E69 |
| BONUA, ESTATU ESPAINOLAREN Z. % 0,60 2029-10-31 | EUR | 125 213,87 | (414,09) | 109 589,75 | (15 624,12) | ES0000012F43 |
| **Zor publikoa GUZTIRA** | | **739 089,97** | **(21 053,63)** | **655 029,44** | **(84 060,53)** | |
| **Aktiboen aldi baterako eskurapena Gordailuzainarekin** | | | | | | |
| REPOA, LABORAL KUTXA % 1,80 2023-01-02 | EUR | 150 000,00 | 7,40 | 150 000,00 | - | ES0000012H33 |
| **Aktiboen aldi baterako eskurapena Gordailuzainarekin GUZTIRA** | | **150 000,00** | **7,40** | **150 000,00** | **-** | |
| **Kotizatzeko onartutako akzioak** | | | | | | |
| AKZIOAK, BBVA | EUR | 16 278,25 | - | 16 338,60 | 60,35 | ES0113211835 |
| AKZIOAK, SANTANDER | EUR | 71 928,64 | - | 36 028,94 | (35 899,70) | ES0113900J37 |
| AKZIOAK, IBERDROLA | EUR | 34 608,51 | - | 46 080,88 | 11 472,37 | ES0144580Y14 |
| AKZIOAK, INDITEX | EUR | 13 737,80 | - | 23 035,95 | 9 298,15 | ES0148396007 |
| **Kotizatzeko onartutako akzioak GUZTIRA** | | **136 553,20** | **-** | **121 484,37** | **(15 068,83)** | |
| **Barruko zorroa GUZTIRA** | | **1 025 643,17** | **(21 046,23)** | **926 513,81** | **(99 129,36)** | |

# I. eranskina. Finantza-inbertsioen zorroa, 2022ko abenduaren 31koa
(Eurotan adierazita)

| Kanpoko zorroa | Dibisa | Hasierako balioztapena | Interesak | Arrazoizko balioa | (Minusbalioa) / Gainbalioa | ISIN |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Kotizatzeko onartutako akzioak** | | | | | | |
| AKZIOAK, Pernord Ricard | EUR | 19 365,34 | - | 26 092,50 | 6 727,16 | FR0000120693 |
| AKZIOAK, DEUT. POST | EUR | 19 610,43 | - | 25 083,34 | 5 472,91 | DE0005552004 |
| AKZIOAK, ESSILOR INTL | EUR | 15 687,75 | - | 31 640,40 | 15 952,65 | FR0000121667 |
| AKZIOAK, VINCI SA | EUR | 16 873,26 | - | 33 211,24 | 16 337,98 | FR0000125486 |
| AKZIOAK, BAYER | EUR | 30 451,89 | - | 30 154,80 | (297,09) | DE000BAY0017 |
| AKZIOAK, BASF AG | EUR | 13 435,00 | - | 25 560,89 | 12 125,89 | DE000BASF111 |
| AKZIOAK, ANHEUSER BUSCH INBEV | EUR | 22 986,77 | - | 27 628,57 | 4 641,80 | BE0974293251 |
| AKZIOAK, ASML HOLDING NV | EUR | 45 707,89 | - | 135 522,20 | 89 814,31 | NL0010273215 |
| AKZIOAK, CRH PLC | EUR | 18 065,00 | - | 19 467,26 | 1 402,26 | IE0001827041 |
| AKZIOAK, NORDEA BANK AD | EUR | 21 268,82 | - | 22 677,83 | 1 409,01 | FI4000297767 |
| AKZIOAK, AHOLD | EUR | 14 353,70 | - | 18 412,24 | 4 058,54 | NL0011794037 |
| AKZIOAK, ENI SPA | EUR | 27 185,02 | - | 23 356,79 | (3 828,23) | IT0003132476 |
| AKZIOAK, INFINEON | EUR | 25 935,73 | - | 21 322,50 | (4 613,23) | DE0006231004 |
| AKZIOAK, KERING | EUR | 15 969,59 | - | 18 069,00 | 2 099,41 | FR0000121485 |
| AKZIOAK, LINDE AG | EUR | 43 903,23 | - | 94 384,05 | 50 480,82 | IE00BZ12WP82 |
| AKZIOAK, DEUTSCHE BOERSE AG | EUR | 19 979,07 | - | 22 918,80 | 2 939,73 | DE0005810055 |
| AKZIOAK, ADYEN | EUR | 24 970,31 | - | 20 614,40 | (4 355,91) | NL0012969182 |
| AKZIOAK, PROSUS | EUR | 33 039,86 | - | 32 547,25 | (492,61) | NL0013654783 |
| AKZIOAK, VONOVIA | EUR | 34 084,04 | - | 14 511,18 | (19 572,86) | DE000A1ML7J1 |
| AKZIOAK, STELLANTIS NV | EUR | 27 794,01 | - | 21 885,60 | (5 908,41) | NL00150001Q9 |
| AKZIOAK, HERMES INTERNATIONAL | EUR | 27 848,03 | - | 28 900,00 | 1 051,97 | FR0000052292 |
| AKZIOAK, SAP AG | EUR | 24 845,80 | - | 63 617,40 | 38 771,60 | DE0007164600 |
| AKZIOAK, BNP | EUR | 36 068,93 | - | 40 949,25 | 4 880,32 | FR0000131104 |
| AKZIOAK, DEUTSCHE TELEKOM | EUR | 53 608,62 | - | 43 240,16 | (10 368,46) | DE0005557508 |
| AKZIOAK, TOTAL | EUR | 73 055,86 | - | 106 332,45 | 33 276,59 | FR0000120271 |
| AKZIOAK, ING GROEP | EUR | 34 237,69 | - | 25 292,75 | (8 944,94) | NL0011821202 |
| AKZIOAK, ALLIANZ AG | EUR | 25 393,52 | - | 54 845,70 | 29 452,18 | DE0008404005 |
| AKZIOAK, VOLKSWAGEN | EUR | 17 712,35 | - | 17 579,42 | (132,93) | DE0007664039 |
| AKZIOAK, NOKIA (AB) | EUR | 16 351,45 | - | 15 430,08 | (921,37) | FI0009000681 |
| AKZIOAK, DAIMLER BENZ | EUR | 16 498,14 | - | 31 743,80 | 15 245,66 | DE0007100000 |
| AKZIOAK, ENEL SPA | EUR | 24 447,19 | - | 23 112,85 | (1 334,34) | IT0003128367 |
| AKZIOAK, AXA-UAP | EUR | 42 527,17 | - | 43 668,18 | 1 141,01 | FR0000120628 |
| AKZIOAK, BANCA INTESA SPA | EUR | 43 655,71 | - | 24 125,58 | (19 530,13) | IT0000072618 |
| AKZIOAK, DANONE | EUR | 19 307,92 | - | 23 482,71 | 4 174,79 | FR0000120644 |
| AKZIOAK, BMW | EUR | 15 745,57 | - | 20 928,38 | 5 182,81 | DE0005190003 |
| AKZIOAK, L OREAL | EUR | 36 535,26 | - | 53 376,00 | 16 840,74 | FR0000120321 |
| AKZIOAK, LVMH | EUR | 20 541,35 | - | 122 382,00 | 101 840,65 | FR0000121014 |
| AKZIOAK, AIR LIQUIDE | EUR | 13 905,58 | - | 46 604,80 | 32 699,22 | FR0000120073 |

## I. eranskina. Finantza-inbertsioen zorroa, 2022ko abenduaren 31koa
(Eurotan adierazita)

| Kanpoko zorroa | Dibisa | Hasierako balioztapena | Interesak | Arrazoizko balioa | (Minusbalioa) / Gainbalioa | ISIN |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Kotizatzeko onartutako akzioak** | | | | | | |
| AKZIOAK, SANOFI | EUR | 44 997,45 | - | 67 469,84 | 22 472,39 | FR0000120578 |
| AKZIOAK, SCHNEIDER | EUR | 29 385,31 | - | 47 974,24 | 18 588,93 | FR0000121972 |
| AKZIOAK, MUENCHENER | EUR | 16 440,38 | - | 27 664,00 | 11 223,62 | DE0008430026 |
| AKZIOAK, ADIDAS | EUR | 19 104,82 | - | 13 128,38 | (5 976,44) | DE000A1EWWW0 |
| AKZIOAK, SIEMENS | EUR | 46 928,01 | - | 76 357,96 | 29 429,95 | DE0007236101 |
| **Kotizatzeko onartutako akzioak GUZTIRA** | | **1 189 808,82** | **-** | **1 683 266,77** | **493 457,95** | |
| **Zuzendaritzaren akzioak eta partaidetzak** | | | | | | |
| PARTAIDETZAK, AMUNDI | EUR | 81 864,50 | - | 84 375,44 | 2 510,94 | LU1681042518 |
| **Zuzendaritzaren akzioak eta partaidetzak GUZTIRA** | | **81 864,50** | **-** | **84 375,44** | **2 510,94** | |
| **Kanpoko zorroa GUZTIRA** | | **1 271 673,32** | **-** | **1 767 642,21** | **495 968,89** | |

## II. eranskina. Deribatuetako inbertsioen zorroa, 2022ko abenduaren 31koa.
(Eurotan adierazita)

| Azalpena | Dibisa | Nominal konprometitua | Arrazoizko balioa | Kontratuaren muga-eguna |
|---|---|---|---|---|
| **Eskura ordaindutako erosketak** | | | | |
| **Erositako gerokoak** | | | | |
| GEROKOA, EU.ST.TECH % 50 2023-03-17 | EUR | 40 225,00 | 35 725,00 | 2023-03-17 |
| GEROKOA, EU.ST.RETAIL % 50 2023-03-17 | EUR | 52 000,00 | 51 230,00 | 2023-03-17 |
| GEROKOA, EU.ST.PERS&HOUSEHOLD % 50 2023-03-17 | EUR | 67 660,00 | 63 810,00 | 2023-03-17 |
| **Erositako gerokoak GUZTIRA** | | **159 885,00** | **150 765,00** | |
| **Beste erosketa-konpromiso batzuk** | | | | |
| PARTAIDETZAK, AMUNDI | EUR | 84 375,44 | 84 375,44 | 1999-12-30 |
| **Beste erosketa-konpromiso batzuk GUZTIRA** | | **84 375,44** | **84 375,44** | |
| **Saldutako gerokoak** | | | | |
| GEROKOA, B.DBR 3208 % 1 2023-03-08 | EUR | 142 120,00 | 132 930,00 | 2023-03-08 |
| GEROKOA, EURO STOXX 50 % 10 2023-03-17 | EUR | 235 450,00 | 227 100,00 | 2023-03-17 |
| GEROKOA, MSCIEUTR % 100 2023-03-17 | EUR | 83 377,50 | 80 370,00 | 2023-03-17 |
| GEROKOA, EU. STOXX % 50 2023-03-17 | EUR | 170 400,00 | 163 880,00 | 2023-03-17 |
| **Saldutako gerokoak GUZTIRA** | | **631 347,50** | **604 280,00** | |
| **GUZTIRA** | | **875 607,94** | **839 420,44** | |

## III. eranskina. Finantza-inbertsioen zorroa, 2021eko abenduaren 31koa.
(Eurotan adierazita)

| Barruko Zorroa | Dibisa | Hasierako balioztapena | Interesak | Arrazoizko balioa | (Minusbalioa) / Gainbalioa | ISIN |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Zor publikoa** | | | | | | |
| BONUA, ESTATU ESPAINOLAREN Z. % 4,65 2025-07-30 | EUR | 19 599,87 | (1 879,77) | 21 051,12 | 1 451,25 | ES00000122E5 |
| BONUA, ESTATU ESPAINOLAREN Z. % 5,40 2023-01-31 | EUR | 128 309,20 | (7 513,02) | 130 115,03 | 1 805,83 | ES00000123U9 |
| BONUA, ESTATU ESPAINOLAREN Z. % 3,80 2024-04-30 | EUR | 242 869,00 | 5 160,09 | 242 728,62 | (140,38) | ES00000124W3 |
| BONUA, ESTATU ESPAINOLAREN Z. % 1,60 2025-04-30 | EUR | 23 024,50 | 252,85 | 24 507,79 | 1 483,29 | ES00000126Z1 |
| BONUA, ESTATU ESPAINOLAREN Z. % 2,15 2025-10-31 | EUR | 38 076,15 | (1 283,15) | 39 656,91 | 1 580,76 | ES00000127G9 |
| BONUA, ESTATU ESPAINOLAREN Z. % 5,15 2028-10-31 | EUR | 158 250,65 | (8 255,20) | 164 831,63 | 6 580,98 | ES00000124C5 |
| BONUA, ESTATU ESPAINOLAREN Z. % 1,45 2027-10-31 | EUR | 52 332,80 | (1 058,36) | 53 110,20 | 777,40 | ES0000012A89 |
| BONUA, ESTATU ESPAINOLAREN Z. % 1,40 2028-04-30 | EUR | 171 951,43 | 651,21 | 175 002,57 | 3 051,14 | ES0000012B39 |
| BONUA, ESTATU ESPAINOLAREN Z. % 1,85 2035-07-30 | EUR | 62 940,90 | (725,05) | 63 238,90 | 298,00 | ES0000012E69 |
| BONUA, ESTATU ESPAINOLAREN Z. % 0,60 2029-10-31 | EUR | 82 463,37 | (222,34) | 82 364,16 | (99,21) | ES0000012F43 |
| **Zor publikoa GUZTIRA** | | **979 817,87** | **(14 872,74)** | **996 606,93** | **16 789,06** | |
| **Aktiboen aldi baterako eskurapena Gordailuzainarekin** | | | | | | |
| REPOA, LABORAL KUTXA −% 0,40 2022-01-03 | EUR | 30 000,00 | - | 30 000,00 | - | ES0000012F84 |
| **Aktiboen aldi baterako eskurapena Gordailuzainarekin GUZTIRA** | | **30 000,00** | **-** | **30 000,00** | **-** | |
| **Kotizatzeko onartutako akzioak** | | | | | | |
| AKZIOAK, BBVA | EUR | 31 995,19 | - | 29 925,00 | (2 070,19) | ES0113211835 |
| AKZIOAK, SANTANDER | EUR | 88 153,99 | - | 46 330,52 | (41 823,47) | ES0113900J37 |
| AKZIOAK, IBERDROLA | EUR | 35 503,73 | - | 50 134,56 | 14 630,83 | ES0144580Y14 |
| AKZIOAK, INDITEX | EUR | 13 737,80 | - | 26 447,31 | 12 709,51 | ES0148396007 |
| **Kotizatzeko onartutako akzioak GUZTIRA** | | **169 390,71** | **-** | **152 837,39** | **(16 553,32)** | |
| **Barruko zorroa GUZTIRA** | | **1 179 208,58** | **(14 872,74)** | **1 179 444,32** | **235,74** | |

# III. eranskina. Finantza-inbertsioen zorroa, 2021eko abenduaren 31koa.
(Eurotan adierazita)

| Kanpoko zorroa | Dibisa | Hasierako balioztapena | Interesak | Arrazoizko balioa | (Minusbalioa) / Gainbalioa | ISIN |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Kotizatzeko onartutako akzioak** | | | | | | |
| AKZIOAK, INFINEON | EUR | 38 177,39 | - | 44 999,04 | 6 821,65 | DE0006231004 |
| AKZIOAK, DEUT. POST | EUR | 22 387,55 | - | 51 621,02 | 29 233,47 | DE0005552004 |
| AKZIOAK, ESSILOR INTL | EUR | 22 231,30 | - | 49 618,60 | 27 387,30 | FR0000121667 |
| AKZIOAK, VINCI SA | EUR | 23 982,78 | - | 47 012,46 | 23 029,68 | FR0000125486 |
| AKZIOAK, BAYER | EUR | 42 748,49 | - | 42 958,00 | 209,51 | DE000BAY0017 |
| AKZIOAK, BASF AG | EUR | 19 530,73 | - | 49 485,78 | 29 955,05 | DE000BASF111 |
| AKZIOAK, ANHEUSER BUSCH INBEV | EUR | 29 541,04 | - | 33 550,27 | 4 009,23 | BE0974293251 |
| AKZIOAK, ASML HOLDING NV | EUR | 51 628,77 | - | 247 345,00 | 195 716,23 | NL0010273215 |
| AKZIOAK, CRH PLC | EUR | 25 620,70 | - | 34 703,92 | 9 083,22 | IE0001827041 |
| AKZIOAK, DAIMLER BENZ | EUR | 10 186,24 | - | 11 882,72 | 1 696,48 | DE000DTR0CK8 |
| AKZIOAK, Pernord Ricard | EUR | 19 365,34 | - | 30 033,00 | 10 667,66 | FR0000120693 |
| AKZIOAK, ENI SPA | EUR | 27 185,02 | - | 21 482,76 | (5 702,26) | IT0003132476 |
| AKZIOAK, KERING | EUR | 28 577,16 | - | 48 069,20 | 19 492,04 | FR0000121485 |
| AKZIOAK, LINDE AG | EUR | 63 794,65 | - | 137 394,00 | 73 599,35 | IE00BZ12WP82 |
| AKZIOAK, DEUTSCHE BOERSE AG | EUR | 19 979,07 | - | 20 888,20 | 909,13 | DE0005810055 |
| AKZIOAK, ADYEN | EUR | 34 334,17 | - | 50 853,00 | 16 518,83 | NL0012969182 |
| AKZIOAK, PROSUS | EUR | 53 144,39 | - | 53 309,25 | 164,86 | NL0013654783 |
| AKZIOAK, VONOVIA | EUR | 25 425,66 | - | 22 261,50 | (3 164,16) | DE000A1ML7J1 |
| AKZIOAK, KONE OYJ | EUR | 20 383,75 | - | 17 525,12 | (2 858,63) | FI0009013403 |
| AKZIOAK, STELLANTIS NV | EUR | 27 794,01 | - | 27 531,90 | (262,11) | NL00150001Q9 |
| AKZIOAK, AHOLD | EUR | 21 467,78 | - | 30 918,51 | 9 450,73 | NL0011794037 |
| AKZIOAK, DANONE | EUR | 23 355,70 | - | 31 498,43 | 8 142,73 | FR0000120644 |
| AKZIOAK, BNP | EUR | 49 671,00 | - | 64 355,43 | 14 684,43 | FR0000131104 |
| AKZIOAK, DEUTSCHE TELEKOM | EUR | 75 221,09 | - | 48 900,00 | (26 321,09) | DE0005557508 |
| AKZIOAK, TOTAL | EUR | 94 734,88 | - | 104 925,13 | 10 190,25 | FR0000120271 |
| AKZIOAK, ING GROEP | EUR | 54 277,76 | - | 43 104,08 | (11 173,68) | NL0011821202 |
| AKZIOAK, ALLIANZ AG | EUR | 33 858,03 | - | 75 584,60 | 41 726,57 | DE0008404005 |
| AKZIOAK, VOLKSWAGEN | EUR | 17 712,35 | - | 26 799,48 | 9 087,13 | DE0007664039 |
| AKZIOAK, DAIMLER BENZ | EUR | 23 518,63 | - | 49 813,83 | 26 295,20 | DE0007100000 |
| AKZIOAK, SIEMENS | EUR | 54 895,41 | - | 105 196,52 | 50 301,11 | DE0007236101 |
| AKZIOAK, ENEL SPA | EUR | 38 280,20 | - | 50 695,97 | 12 415,77 | IT0003128367 |
| AKZIOAK, SAP AG | EUR | 32 374,83 | - | 107 414,00 | 75 039,17 | DE0007164600 |
| AKZIOAK, BANCA INTESA SPA | EUR | 57 173,56 | - | 34 576,17 | (22 597,39) | IT0000072618 |
| AKZIOAK, BMW | EUR | 15 745,57 | - | 22 210,99 | 6 465,42 | DE0005190003 |

## III. eranskina. Finantza-inbertsioen zorroa, 2021eko abenduaren 31koa. (Eurotan adierazita)

| Kanpoko zorroa | Dibisa | Hasierako balioztapena | Interesak | Arrazoizko balioa | (Minusbalioa) / Gainbalioa | ISIN |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Kotizatzeko onartutako akzioak** | | | | | | |
| AKZIOAK, LOREAL | EUR | 19 055,95 | - | 72 549,30 | 53 493,35 | FR0000120321 |
| AKZIOAK, LVMH | EUR | 25 106,09 | - | 159 940,00 | 134 833,91 | FR0000121014 |
| AKZIOAK, AIR LIQUIDE | EUR | 18 251,07 | - | 64 394,40 | 46 143,33 | FR0000120073 |
| AKZIOAK, SANOFI | EUR | 59 185,26 | - | 86 719,82 | 27 534,56 | FR0000120578 |
| AKZIOAK, SCHNEIDER | EUR | 24 886,50 | - | 85 712,62 | 60 826,12 | FR0000121972 |
| AKZIOAK, MUENCHENER | EUR | 21 860,28 | - | 31 520,50 | 9 660,22 | DE0008430026 |
| AKZIOAK, PHILIPS | EUR | 22 532,89 | - | 25 556,70 | 3 023,81 | NL0000009538 |
| AKZIOAK, ADIDAS | EUR | 28 008,04 | - | 38 233,20 | 10 225,16 | DE000A1EWWW0 |
| AKZIOAK, AXA-UAP | EUR | 51 661,89 | - | 53 312,66 | 1 650,77 | FR0000120628 |
| **Kotizatzeko onartutako akzioak GUZTIRA** | | **1 468 852,97** | **-** | **2 456 457,08** | **987 604,11** | |
| **Zuzendaritzaren akzioak eta partaidetzak** | | | | | | |
| PARTAIDETZAK, AMUNDI | EUR | 114 053,31 | - | 118 998,10 | 4 944,79 | LU1681042435 |
| **Zuzendaritzaren akzioak eta partaidetzak GUZTIRA** | | **114 053,31** | **-** | **118 998,10** | **4 944,79** | |
| | | | | | | |
| **Kanpoko zorroa GUZTIRA** | | **1 582 906,28** | **-** | **2 575 455,18** | **992 548,90** | |

## IV. eranskina. Deribatuetako inbertsioen zorroa, 2021eko abenduaren 31koa. (Eurotan adierazita)

| Azalpena | Dibisa | Nominal konprometitua | Arrazoizko balioa | Kontratuaren muga-eguna |
|---|---|---|---|---|
| **Eskura ordaindutako erosketak** | | | | |
| Erositako gerokoak | | | | |
| GEROKOA, EU.ST.TECH % 50 2022-03-18 | EUR | 94 250,00 | 98 090,00 | 2022-03-18 |
| GEROKOA, EU.ST.PERS&HOUSEHOLD % 50 2022-03-18 | EUR | 76 510,00 | 77 180,00 | 2022-03-18 |
| GEROKOA, EU.ST.RETAIL % 50 2022-03-18 | EUR | 68 110,00 | 69 190,00 | 2022-03-18 |
| **Erositako gerokoak GUZTIRA** | | **238 870,00** | **244 460,00** | |
| **Beste erosketa-konpromiso batzuk** | | | | |
| PARTAIDETZAK, AMUNDI | EUR | 118 998,10 | 118 998,10 | 1899-12-30 |
| **Beste erosketa-konpromiso batzuk GUZTIRA** | | **118 998,10** | **118 998,10** | |
| **Eskura ordaindutako salmentak** | | | | |
| **Saldutako gerokoak** | | | | |
| GEROKOA, B.DBR 3102 % 1 2022-03-08 | EUR | 173 570,00 | 171 370,00 | 2022-03-08 |
| GEROKOA, EU. STOXX % 50 2022-03-18 | EUR | 231 400,00 | 239 050,00 | 2022-03-18 |
| GEROKOA, EURO STOXX 50 % 10 2022-03-18 | EUR | 290 342,50 | 300 125,00 | 2022-03-18 |
| GEROKOA, MSCIEUTR % 100 2022-03-18 | EUR | 114 030,00 | 118 280,00 | 2022-03-18 |
| **Saldutako gerokoak GUZTIRA** | | **809 342,50** | **828 825,00** | |
| | | | | |
| **GUZTIRA** | | **1 167 210,60** | **1 192 283,10** | |

## URTEKO KONTUAK ETA KUDEAKETA-TXOSTENA

Caja Laboral Gestion SGIIC SAren administratzaileak 2023ko martxoaren 31n bildu dira, eta, indarrean dagoen legeria betez, Laboral Kutxa Crecimiento IF funtsaren urteko kontuak eta kudeaketa-txostena (2022ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldikoak) egin dituzte. Kontu eta txosten horietan, idazki honen aurreko dokumentuak sartzen dira, alegia, honako hauek:

a) 2022ko abenduaren 31ko balantzea, galdu-irabazien kontua eta 2022ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldiko ondare garbiaren aldaketen egoera-orria.

b) Urteko kontuen txostena, 2022ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldikoa.

c) Kudeaketa-txostena, 2022ko ekitaldikoa.

**SINATZAILEAK:**



**D. José Carlos Maza**
Lehendakaria



**Sara Galino Calderón**
Kidea



**D. Beñat Herce Leceta**
Kidea



**D. Aitor García Santamaria**
Idazkaria

LABORAL
kutxa